

27/2014 FORU ARAUA, UZTAILAREN 9KOA, BEROTEGI-EFEKTUKO GAS FLUORDUNEN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA

(ALHAO, 81. zk., 14-7-18koa)

ZIOEN AZALPENA

Ingurumen-fiskalitatearen arloan zenbait neurri ezarri eta beste tributu- eta finantza-neurri batzuk onartzen dituen urriaren 29ko 16/2013 Legeak, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, zerga-antolamenduan Berotegi-efektuko Gas Fluordunen gaineko Zerga txertatzen du. Gas horien kontsumoan eragiten duen zeharkako zerga bat da, eta fase bakarrean kargatzen du produktu horien kontsumoa, atmosfera berotzeko duten potentzialaren arabera.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzea erabaki du, besteak beste Berotegi-efektuko Gas Fluordunen gaineko Zerga ituntzeko.

Itun hori Arabako Biltzar Nagusiek berretsi dute, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo erabakia berresteko otsailaren 26ko 4/2014 Foru Arauaren bidez.

Ekonomia Itunaren 34. artikulua arabera, Berotegi-efektuko Gas Fluordunen gaineko Zerga itundutako tributua da, eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arauak erabiliko dira hura eraentzeko.

Horregatik Foru Arau hau eman behar da, Arabako Lurralde Historikoaren zerga antolamenduan zerga hau txertatzeko eta hala Arabako zerga sistema ingurumen arloan harmonizatzeko, Europar Batasunaren bide beretik.

1. artikulua. Izaera.

Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga bere eremu objektiboan sartzen diren produktuen kontsumoan eragiten duen zeharkako zerga bat da, eta fase bakarrean kargatzen du produktu horien kontsumoa, atmosfera berotzeko duten potentzialaren arabera.

2. artikulua. Esparru objektiboa.

Zerga honen ondorioetarako, "berotegi-efektuko gas fluordunak" hauek dira: berotegi-efektuko gas fluordun batzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 17ko 842/2006 (EE) Erregelamenduko I. eranskinean jasotzen diren hidrofluorokarburoak (HFC), perfluorokarburoak (PFC) eta sufre hexafluoruroa (SF₆); substantzia horiek dituzten prestakinak, birsortzaileak eta birziklatuak, ozonogerruz ezabatzen duten substantziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera araututako substantzien kasuan salbu.

3. artikulua. Araudi aplikagarria.

1. Ekonomia Itunaren 34. artikuluan xedatutakoaren ildotik, zerga foru arau honetan eta hura garatzen duten xedapenetan xedatutakoarekin bat etorri eskatuko da.

2. Foru arau honetan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko Espainiako barne antolamenduaren osagai bihurtu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

4. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Zergaren ordainarazpena Arabako Foru Aldundiari egokituko zaio, hurrengo artikulua azaltzen diren azken kontsumitzaileek zergaren xede diren produktuok Arabako Lurralde Historikoan dauden instalazio, ekipo edo aparatuetan erabiltzen dituztenean.

Berotegi-efektuko gas fluordunen xedea autokontsumoa denean, Zergaren ordainarazpena Arabako Foru Aldundiari egokituko zaio autokontsumo hori Arabako Lurralde Historikoan egiten denean.

Aurreko paragrafoan aurreikusten ez diren gainerako kasuetan, ordainarazpenaz Arabako Foru Aldundia arduratuko da zergadunak zerga egitatea egiten dueneko establezimendua Arabako Lurralde Historikoan dagoenean.

5. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

1. (1) “Azken kontsumitzailea”: Berotegi efektuko gas fluordunak birsaltzeko, beste produktu batzuekin batera erabiltzeko edo bere instalazio, ekipo edo aparatuen azken produktu gisa erabiltzeko, ekipo edo aparatua fabrikatzeko edo ekipo edo aparatua kargatzeko, berriz kargatzeko, konpontzeko edo mantentzeko jasanarazitako zergarekin erosten dituen pertsona edo erakundea.

Beti izango da azken kontsumitzailea berotegi efektuko gas fluordunak ekipo edo aparatua fabrikatzeko edo ekipo edo aparatua kargatzeko, berriz kargatzeko, konpontzeko edo mantentzeko erosten duen pertsona edo erakundea, ondoko jarduera hauetarako ziurtagiria baino ez daukana: 3 kilogramo gas fluordunetik beherako hozgarri kargako hozkailu sistemak dituzten ekipoak maneiatzeko, edo ibilgailuetan pertsonen konfort termikorako instalatuta dauden hozgarri fluordunak erabiltzen dituzten hozkailu sistemak maneiatzeko, ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuak, gas fluordunen merkaturatzea, maneiatzea eta haietan oinarritutako aparatua eta aparatua erabiltzen dituzten profesionalen ziurtapena arautzen dituenak, lehen eranskinean ezartzen duenarekin bat etorritik.

Ondorio horietarako, “ibilgailuak” dira pertsonak edo salgaiak garraiatzeko erabiltzen diren baliabide guztiak (nekazaritzan edo industrian erabiltzen diren makina mugikorrek barne), trenbideak, ontziak eta aireontziak izan ezik.

2. “Ekipo edo tresna berriak”: lehen aldiz erabiltzen diren edo abian jartzen diren ekipoak, tresnak edo instalazioak dira.

3. “Atmosfera berotzeko potentziala”: berotegi-efektuko gas fluordun batek karbono dioxidoaren potentzialarekin alderatuta duen berokuntza klimatikorako potentziala da, 100 urte inguruko epea hartuta kontuan. Gas horiek 11. artikuluko paragrafoko 1. zenbakian adierazten den atmosfera berotzeko potentziala dute.

4. “Prestakin batek atmosfera berotzeko duen potentziala”: 11. artikuluko 1. zenbakian aipatzen den substantzia bakoitzaren pisuaren arabera zatikien batura atmosfera berotzeko duten potentzialarekin eta +/- % 1eko pisu-tolerantziarekin biderkatetik eratorritako batez besteko haztatua da.

5. “Prestakina”: bi substantziaren edo gehiagoren arteko nahasketa, horietako bat gutxienez berotegi-efektuko gas fluorduna denean, prestakin horrek atmosfera berotzeko duen potentziala 150 baino txikiagoa denean salbu.

6. “Birsaltzea”: berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga aplikatzeko den lurraldean garbiketarako oinarritako prozedura bidez egiten den tratamendua.

7. “Birsorkuntza”: berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga aplikatzen den lurraldean prozedura edo tratamendu kimikoen bitartez egiten den berreskuratzeko

tratamendua eta hobekuntza; betiere, gas fluordunaren ezaugarri teknikoak buruzko arauaren arabera mailak ezartzeko helburuarekin.

8. (1) "Birsaltzailea": Kudeaketa bulegoak arau bidez ezartzen denaren arabera emandako baimenaz baliatuta zergaren kargapeko gasak zerga ordaindu gabe ondoko erabilera hauetarako erosten dituen pertsona edo erakundea:

- a) Azken kontsumitzaile bati edo beste pertsona edo erakunde bati emateko, gero zergaren aplikazio lurraldean merkaturatzeko edo lurralde horretatik kanpo bidaltzeko edo erabiltzeko asmoarekin.
- b) Bezeroen ekipoak edo aparatuak kargatzeko, berriz kargatzeko, konpontzeko edo mantentzeko erabiltzeko.

9. (1) Foru Arau honetan agertzen diren kontzeptuei eta terminoei dagokienez, eta bertan hala definitzen den kasuetan salbu, berotegi-efektuko gas fluordunei dagokienez Europar Batasuneko eta Estatuko araudian xedatzen dena bete beharko da.

10. (1) "Zerga aplikatzeko Lurraldea": Espainiako lurraldea.

6. artikulua. Zerga egitatea.

1. (1) Zergapean daude:

- a) Europar Batasunean ekoitzi, inportatu edo erositako berotegi efektuko gas fluordunak lehenengoz saltzea edo ematea. Era berean, lehen salmenta edo ematea bezalakoa izango da enpresaburuek berotegi efektuko gas fluordunak berriz saltzea, baldin eta eskuratzean 7. artikuluko 1. zenbakiko a) letran arautzen den salbuespena aplikatu bazaie.
- b) Berotegi efektuko gas fluordunen autokontsumoa. Autokontsumotzat hartuko da aurreko letran aipatzen diren enpresaburuek, Europar Batasuneko eskuratzailerak, inportatzaileak eta ekoizleak berotegi efektuko gas fluordunak erabiltzea edo kontsumitzea.
- c) Zergaren kargapeko berotegi efektuko gas fluordunen inportazioak edo Europar Batasuneko eskuraketak, baldin eta gas horiek dauden produktuen erabileraren ondorioz eguratsera isurtzen badira. Besteak beste, aerosolak, poliuretano sistemak eta aparrak eta poliestireno ekoiztua dira produktu horiek.

2. (1) Berotegi efektuko gas fluordunen salmentak eta emateak ez daude zergapean kasu honetan: Europar Batasuneko ekoizleak, inportatzaileak edo erosleak gasa zergaren aplikazio lurraldetik kanpo bidaltzen duenean.

Ondoko hauek ere ez daude zergapean:

- Atmosfera berotzeko potentziala 150ekoa edo hortik beherakoa duten berotegi efektuko gas fluordunen salmentak eta ematea, autokontsumoa eta, aurreko zenbakiko c) letran aipatzen den kasuan, inportazioa edo Batasunaren barruko eskuraketa.
- Zergaren kargapeko gasen galerak, hain zuzen ere neurketa tresnen zehazgabatasunen ondorioz gertatzen direnak, baldin eta frogatu ahal bada galera neurketa tresnaren ziurtagirian zehaztutako pisu tolerantziaren mugen barruan dagoela. Neurketa tresna behar bezala homologatuta egon behar da Legezko Metrologiaren Nazioarteko Erakundeak ezarritako ziurtagiri programarekin bat etorritik.

3. Aurkakoa frogatu ezean, berotegi-efektuko gas fluordunak zergarekin lotutako salmenta edo entregaren xede izan direla ulertuko da, zergadunek produktu fabrikatuen, inportatuen edo erosien norakoa justifikatzen ez dutenean.

7. artikulua. (1) Salbuespenak.

1. Ondoko hauek salbuetsita daude (arauegian zehaztuko da nola):

- a) Berotegi efektuko gas fluordunak zergaren aplikazio lurraldean birsaldutako behar dituzten enpresaburuei lehen aldiz saltzea edo ematea, baldin eta birsaltzaileak badira arau honetako 5. artikuluan ezartzen denaren arabera.
- b) Enpresaburuei berotegi efektuko gas fluordunak (produktu, ekipo eta aparatuetakoak barne) lehen aldiz saltzea edo ematea, baldin eta xedea gero zergaren aplikazio lurraldetik kanpo bidaltzea edo erabiltzea bada.
- c) Berotegi efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo ematea, baldin eta erosten edo eskuratzen dituzten enpresaburuek gero gasak lehengai modura erabiliko badituzte konposizioa guztiz aldatzen duten eraldaketa kimikoetan.
- d) Berotegi efektuko gas fluordunak enpresaburuei lehen aldiz saltzea edo ematea, baldin eta xede gero lehen aldiz ekipo edo aparatu berrietan txertatzea bada.
- e) Enpresaburuei berotegi efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo ematea, baldin eta xedea gero inhalaziorako aerosol dosifikatzaile gisa aurkezten diren sendagaiak fabrikatzea bada.
- f) Berotegi efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo ematea, baldin eta gasaren xedea ekipoak edo aparatuak berriz kargatzea bada beste gasen bat atera ondoren eta frogatzen bada ateratako gasa suntsitu, birziklatu edo berrerabiltzeko eskumena daukan administrazio publikoak onartutako hondakin kudeatzaile baten esku utzi dela. Salbuetsitako gas kopurua ezin da izan ekipotik atera eta hondakin kudeatzailearen esku utzi takoa baino gehiago.
- g) Berotegi efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo ematea nazioarteko itsas nabigazioan edo aireko nabigazioan ari diren itsasontziei edo aireontziei; salbuespena: jolaserako nabigazio pribatua.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, nazioarteko itsas edo aire nabigazioa zergaren aplikazio lurraldetik abiatu eta kanpoan amaitzen dena (edo alderantziz) izango da. Halaber, nazioarteko itsas nabigaziotzat hartzen da itsaso zabalean dabiltzan ontziek garraioa ez beste industria, merkataritza edo arrantza jarduera bat egitea, eskalarik gabeko nabigazioaldia berrogeita zortzi ordu baino luzeagoa ez bada.

2. Arauegian zehazten diren baldintzak betez gero, atmosfera berotzeko potentziala 3.500ekoa edo hortik beherakoa duten berotegi efektuko gas fluordunen lehen salmenta edo emateen ehuneko 95a salbuetsita egongo da, baldin eta enpresaburuaren xedea gasa sua itzaltzeko sistema finko batean erabiltzea bada edo sua itzaltzeko sistema finko batean inportatzen edo eskuratzen bada.

Halaber, ehuneko 95eko salbuespena edukiko dute modu ofizialean onartutako zentroei egiten zaizkien berotegi efektuko gas fluordunen lehen salmentek eta emateek, gasa irakaskuntzan baino erabiltzeko ez bada, eta ikerkuntzan ari diren zentroei eta aholkularitza edo ingeniarietako enpresen proba laborategiei edo ekoizleen ikerketarako proba laborategiei egiten zaizkien ere bai, baldin eta gasa zentrotik edo laborategitik irteten ez bada edo frogatzen bada hondakin kudeatzaile baten bidez suntsitzen dela.

Zentro horien zuzendariak kudeaketa bulegoari eskatu behar diote salbuespena aplikatzeko. Gas fluorduna beste zerbaitetarako erabili nahi bada edo zentrotik irtengo bada, zuzendariak horren berri eman behar dio kudeaketa bulegoari.

Indar Armatuek sua itzaltzeko ekipoetan erabiltzeko egiten diren berotegi efektuko gas fluordunen lehen salmentek eta emateek ere ehuneko 95eko salbuespena edukiko dute.

Defentsa Ministerioak kudeaketa bulegoari eskatu behar dio salbuespena aplikatzeko. Eskaeran zehaztu behar da zer gas fluordun behar den eta, aurreikusitako beharrezkin bat etorriz, zenbat nahi den eskuratu salbuespenarekin. Eskaeran jakinarazitako inguruabarrak aldatzen badira, Defentsa Ministerioak horren berri eman behar dio kudeaketa bulegoari.

3. Artikulu honetako aurreko letretan arautzen diren salbuespenetarako foru arau honetan zein arautegian ezartzen diren baldintzak mutatis mutandis betez gero, salbuespena egongo dira berotegi efektuko gas fluordunen autokontsumoak eta foru arau honetako 6. artikuluko 1. zenbakiko c) letran aipatzen diren berotegi efektuko gas fluordunen inportazioak eta Batasunaren barruko eskuraketak.

4. Artikulu honetako 1., 2. eta 3. zenbakietan xedatzen dena gorabehera, baldin eta zenbaki horien arabera eskuratutako berotegi efektuko gas fluorduna salbuespenerako eskubidea ematen duten xedeetarako ez besteren baterako erabiltzen bada, lehen salmenta edo ematea zergaren aplikazio lurraldean kontsumorako erabiltzen denean edo xede horietako batean baliatzen denean egintzat joko da.

8. artikulua. Sortzapena.

1. Zergaren xede diren produktuak erosleek edo, hala badagokio, autokontsumoaren eskura jartzen diren momentuan sortuko da zerga.

2. 6. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako kasuetan, produktua fabrikatzean, inportatzean edo erostean sortuko da zerga, irregulartasuna egin den data frogatu daitekeen kasuetan salbu, horrelakoetan hura izango baita zerga sortzen den momentua.

3. 7. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako egoeretan, lehen salmenta edo entrega egiten denean sortuko da zerga.

9. artikulua. Zergadunak.

1. (1) Zerga honen zergadun dira zergaren kargapeko salmentak edo emateak, inportazioak, Batasunaren barruko eskuraketak edo autokontsumo eragiketak egiten dituzten fabrikatzaileak, inportatzaileak, Batasunaren barruko eskuratzaileak, hondakin kudeatzaileak eta birsaltzaileak.

2. 7. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako egoeretan, zergaduntzat joko dira berotegi-efektuko gas fluordunak zerga aplikatzen den lurralde esparruko salbuespen eskubidea aplikatzen ez zaien beste erabilera batzuetara bideratzen dituzten enpresaburuak.

3. (1) Foru arau honetako 6. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren kasuetan, zergaren kargapeko salmentako edo emateko berotegi efektuko gas fluorduna zertarako den frogatu ez dela pentsatzen bada —kontrakorik frogatu ezean—, zergaduna salmenta edo ematea egiten duen fabrikatzailea, inportatzailea, Batasuneko eskuratzailea edo birsaltzailea izango da.

10. artikulua. Zerga oinarria.

Zergaren xede diren produktuen pisuaren arabera izango da zerga oinarria; pisu hori kilogramotan adieraziko da.

11. artikulua. (3) Zerga tasa.

1. 1. tarifa: Atmosfera berotzeko potentzialaren arabera izango da zerga.

Zerga-tasa kalkulatzeko, 0,015 koefizientea aplikatuko zaio gas fluortu bakoitzak atmosfera berotzeko duen potentzialari; dena den, gehienez ere 100 euro ordainduko dira kilogramo bakoitzeko, honako epigrafe hauei jarraituz:

Epigrafea	Berotegi-efektuko gas fluortua	Atmosfera berotzeko potentziala	Tasa €/kg-ko
1.1.	Sufre hexafluoruroa	22.800	100
1.2.	HFC - 23	14.800	100
1.3.	HFC - 32	675	10,13
1.4.	HFC - 41	92	–
1.5.	HFC - 43-10mee	1.640	24,6
1.6.	HFC - 125	3.500	52,5
1.7.	HFC - 134	1.100	16,5
1.8.	HFC - 134a	1.430	21,45
1.9.	HFC - 152a	124	–
1.10.	HFC - 143	353	5,3
1.11.	HFC - 143a	4.470	67,05
1.12.	HFC - 227ea	3.220	48,3
1.13.	HFC – 236cb	1.340	20,1
1.14.	HFC - 236ea	1.370	20,55
1.15.	HFC - 236fa	9.810	100
1.16.	HFC - 245fa	693	10,4
1.17.	HFC - 245fa	1.030	15,45
1.18.	HFC - 365mfc	794	11,91
1.19.	Perfluorometanoa	7.390	100
1.20.	Perfluoroetanoa	12.200	100
1.21.	Perfluoropropanoa	8.830	100
1.22.	Perfluorobutanoa	8.860	100
1.23.	Perfluoropentanoa	9.160	100
1.24.	Perfluorohexanoa	9.300	100
1.25.	Perfluoroziklobutanoa	10.300	100

2. 2. tarifa:

2.1 epigrafea: Prestakinak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,015 koefizientea aplikatuko zaio prestakinetik eratorritako atmosfera berotzeko potentzialari, betiere bosgarren apartatuaren 2. zenbakian xedatutakoa kontutan hartuta eta kilogramo bakoitzeko gehienez ere 100 euro ordainduko direlarik.

3. 3. tarifa:

3.1. epigrafea. 1. tarifako gas birsortuak eta birziklatuak: zerga tasa izango da 0,50 koefizientea 1. tarifan ezarritako tasari aplikatzen dena.

3.2. epigrafea. 2. tarifako prestakin birsortuak eta birziklatuak: zerga tasa izango da 0,50 koefizientea 2. tarifan ezarritako tasari aplikatzen dena.

12. artikulua. Kuota osoa.

Zerga oinarriari karga tasa aplikatzearen emaitza izango da kuota osoa.

13. artikulua. Zerga jasanaraztea.

1. Zergadunek sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazi beharko diete zergaren xede diren produktuen erosleei. Erosleak kuotak jasatera behartuta egongo dira.

2. Jasanarazitako kuotak fakturan jasanaraziko dira, bertan jasotzen diren gainerako kontzeptuetatik berezita. Zerga ordaindu behar ez duten edo salbuetsita dauden eragiketen kasuan, egoera hori berariaz adieraziko da aipatutako agirian, betiere hobari horren aplikazioa jasotzen duen Foru Arau honetako manua argi eta garbi adieraziz.

3. Eragindako kuotak ez dira jasanaraziko ikuskapen akten ondorio diren likidazio kasuetan eta oinarrien zeharkako balioespeneke kasuetan.

14. artikulua. Kenkariak eta itzulketak.

1. Likidazioaldi bakoitzari dagozkion autolikidazioetan, eta erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan, zergadunek herri administrazio eskudunak aitortutako hondakin-kudeatzaileei eman dizkieten berotegi-efektuko gas fluordunei dagozkien zerga ordainduaren kuotak kendu ahal izango dituzte, horiek hondakinen sektoreko legedian jasotako dokumentazioari eta kontrolei jarraiki suntsiarazteko, birziklatzeko edo birsortzeko helburuarekin.

Kenkari hori aplikatzeko, suntsipena gertatu den likidazioaldiari dagokion kuota murriztuko da. Bidezko diren kenkarien zenbatekoa likidazioaldian sortutako kuoten zenbatekoa baino gehiago denean, gaindikin hori hurrengo likidazio aitortutako konpentsatu ahal izango da, baldin eta gaindikin hori sortu zen aldiari dagokion likidazio aitortutako zenetik kontatzen hasita lau urte igaro ez badira.

2. Berotegi-efektuko gas fluordunen azken kontsumitzaileek, zerga ordaindu dutenean, eta 7. artikuluan aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko eskubidea dutenean edo herri-administrazio eskudunak aitortutako hondakin-kudeatzaileei berotegi-efektuko gas fluordunak eman izana egiaztatzen dutenean horiek hondakinen sektoreko legedian jasotako dokumentazioaren eta kontrolen arabera suntsitu, birziklatu edo birsortzeko helburuarekin, eta aurretiaz kenkaririk aplikatu ez bazaie, hura itzultzeko eskatu ahal izango diote Tributu Administrazioari, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan.

15. artikulua. Kudeaketako arau orokorrak.

1. Sortutako kuotak adieraziko dituen autolikidazio bat aurkeztu beharko dute lau hilean behin zergadunek; era berean, zerga zorra ordaindu beharko dute harekin batera.

2. Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarritako aurreko zenbakian aipatzen diren autolikidazioak aurkezteko ereduak,

epeak, betebeharrak eta baldintzak, bai eta, hala badagokio, aurretiaz produkturen prezioan jasan duen baina kenkaririk izan ez duen zergaren itzulketa eskatzekoak ere.

3. Foru Arau honen 6. artikuluan adierazitako jarduerak gauzatzen dituzten zergadunek nahitaez inskribatu beharko dituzte beren instalazioak berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren lurralde erregistroan.

4. Merkataritzako xedapenek eta zerga nahiz sektore izaerako beste arau batzuek zehaztutako kontabilitate baldintzak edozein direla ere, berotegi-efektuko gas fluordunen izakinen kontabilitatea erregelamendu bidez xedatutako moduan eramatea zehaztu ahal izango da.

5. 11. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako zerga tasak aplikatzeko, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzak bete beharko dira.

16. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.

Zerga honekin lotutako arau hausteak otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, eta Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 97/2008 Foru Dekretuak, zerga arau hauste eta zehapenen arautegia onartzen duenak, aurreikusitakoarekin bat etorritik sailkatu eta zehatuko dira.

17. artikulua. Araubide iragankorra.

(2) 2014ko, 2015eko eta 2016ko ekitaldietarako, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergan aplikatuko diren zerga tasak kalkulatzeko, foru arau honen 11. artikuluan araututako tasak 0,33 eta 0,66 koefizienteekin biderkatuko dira, 2014ko ekitaldian, eta 2015 eta 2016ko ekitaldietan, hurrenez hurren.

(1)

18. artikulua. (1) Poliuretanoaren sektorerako araubide berezia.

Poliuretanoa ekoizteko edo poliuretano fabrikatuan inportatzen edo eskuratzen diren gas fluordunei aplikatu beharreko zerga tasa kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: gasari atmosfera berotzeko duen potentziala (5. artikuluko 11. zenbakia) kontuan hartuta dagokion zerga tasa 0,10 koefizienteaz biderkatu.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundia gaitu egiten da xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

OHARRAK

(1) 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 10ekoa.
(ALHAO, 36. zk., 15-3-25ekoa).

- (2) 1/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 4koa.
(ALHAO, 17. zk., 16-02-12koa).
- (3) 2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 11koa.
(ALHAO, 108. zk., 18-09-19koa).